

BERRIGARA

203. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, irailak 15



San Martin jaiak



**LARRANAGA**
A U T O E S K O L A

ADI ORAIN!! IRAILEAN
% 10eko DESKONTUA
ZURE INSKRIPZIOAN
GAZTE TXARTELA
BADAUKAZU


Artekale, 22 Tfnoa: 76 16 63 BERGARA

Bergarako Udala zure zerbitzura



■ Udaletxea	■ 77 91 00
	■ 77 91 63 (Faxa)
■ Kultur Etxea	■ 76 44 46
■ Mizpirualde Egoitza	■ 76 13 68
■ Udal Euskaltegia	■ 76 44 53
■ Igerilekua	■ 76 20 51
■ Polikiroldegia	■ 76 56 41

SAN MARTIN JAIETAN ONDO PASA!!



TORREALDAY

aholkulari-kontsultoreak

Bidekurutzeta 6, 2 Ezkerre

Tfnoa eta Faxes: 76 53 80

- ARLO FISKALA
- KONTABILITATEA
- FRANKIZIAK
- GIZA BALIABIDEAK
- ARLO LABORALA
- ASEGURUAK
- AUDITORIARIK

1979tik enpresa txiki eta erdi mailako zerbitzura profesionaler osatutako taldea, orain Bergaran

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar
Ane Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Mari Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

Komikiak:

Enhor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Enhor Azkarate

Portadako argazkia:

Benito Cantero

Banaketa:

Kuantxangorri taldea

Tirada:

1000 ale.

Suprimategia:

Bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

88/50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

JULEN NARBAIZA Txakur leren taldekoa

- Nolakoak izango dira igandeko txakur-
rren salbamenduko ariketak?

- Elorrioko Laguntza Txakur Taldeko 15 bat txakur etorriko dira eta salbamendu lanetan erabiltzen dituzten teknikak erakutsiko dizkigute. Talde hau istripu larriren bat gertatzen denetan deitzen dute eta galtzen diren pertsonak topatzen espezializaturik daude. Nola lan egiten duten azalduko digute eta ikuskizun espektakularra baino didaktikoa izango dela uste dut. Errealitatean gertatzen diren egoerak imitatuko dituzte eta txakurrei hainbat zailtasun (sua, eskilarak..., etab.) jarriko diete bidean.

- Altos Hornosen egingo da proba...

"Salbamenduko txakurrek ikuskizun espektakularra eskainiko dute domekan"



- Horrela da, bai. Errealitatean ematen diren situazioak errepikatuko dituztenez honelako toki bat eskatu ziguten eta Altos Hornoseko pabiloi zaharrak asko gustatu zitzaizkien. Gauza ikusgarriak izango dira eta Gurutze Gorriak ere hartuko du parte. Hala ere jendeak uler dezala txakurak ez direla perfektoak, ez da pelikuletan bezala izango.

E S A N D U T E

"Euskal taldeen artean badirudi Taun-Taun Kolektiboak jaso duela harrerarik itzaropentsuena Tarragan. Formato txikiko "Re9n" lan bitxiagatik Europatik proposamenak jaso dituzte. Era berean, estetika oso atraktiboa duen "Makinatu" eskaini zuten. Lan honek ukaezinezko kalitatea dauka eta kontra duen gauza bakarra tradiziorik ez duen helduentzako txotxongiolen jenerokoa izatea da.

Horregatik, profesional eta kritikaren aitortpena izan arren, distribuziorako zailtasunak izan ditzake"

CARLOS GIL
Kazetaria
EGIN

"Hain jakintsua izan arren, apala zen On Manuel Lekuona. Zenbat eta jakintsuago, orduan eta apalago, sagarrez beteta dagoen zuhaitza bezala. Zenbat eta sagar gehiago, orduan eta makurtuago"

RUFINA OLASAGASTI
Udal Kultur
Jestorea
ARRASATE PRESS

I T U R R I O N E T I K

Santalaitzen diskoteka bat egiteko proiektua aurkeztu da Udaletxean

Aste honetan herriko enpresari talde batek Santalaitzen diskoteka bat egiteko proiektua aurkeztu du. Alkateak adierazi digunez urtean zehar hainbat elkarrizketa izan dituzte enpresari hauekin proiektuaren nondik norakoak zehazteko. Aipatutako diskoteka hasieran IAT-ITV tailerra egon zen Santalaitzeko pabiloi berdinean joango litzateke. Proiektuak Udalaren onarpena jaso bezain laister diskoteka egiteko lanak hasi daitezke Udala oso interesatuta baitago herrian honelako lokal bat izateko. Fetxarrik aurreraterik ez badago ere, urte hasierarako edo zabalik izan daiteke.



EL SABOR DE LA MUERTE

Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

Zinea

▼▼ Barbet Schroederek

(*El borracho*, *Mujer blanca soltera busca*, *El misterio Von Bulow*) zuzendutako filme honetan **David Caruso**, **Samuel L. Jackson** eta **Nicolas Cage** dira protagonista nagusiak. *Kilmartinek* (**Caruso**), familiaren laguntzaz, bere bizitza zuzendu nahiko du baina negozio beltz batean sartu ondoren, legea eta mafiaren artean inguraturik aurkituko da berriz ere.

Deiak

▼ **EAJ-PNV.** Bergarako EAJ-PNVk dei egiten die alderdikide eta lagunei igandean Gasteizeko Salburuako zelaietan ospatuko den Alderdi Egunean parte hartzeko. Autobuseko txartelak Batzokian.


▼ **Unibertsitatera.** Bilbo, Leioa edota Donostiara autobusez joan nahi duten ikasleak Kultur Etxetik pasa daitezke datorren astean 5etatik 9etara.

▼ **1933an** jaiotakoen bazkaria irailaren 24an Antxonin. Izen-emaitea Intxorta tabernan.

▼ **Odol ateraldia.** Asteazkenean, irailak 20, 7etan Seminarioko baxuetan.

▼ Dantzari eguna

Dantzari eguna ospatuko dute igande honetan Antzuolan Oinari dantza taldeak antolatuta. Goizeko 10etan herriko txistularien kalejira izango da eta ordu erdi beranduago bailarako dantza taldeei harrera egingo zaie. 11.15etan, kalejira egingo dute dantzariak azuoetatik zehar eta 12.30etan Herriko Plazan bilduko dira guztiak dantza saioa eskaintzeko. Ondoren, bazkaltzera joango dira. Arratsaldeko 5etarako, ostera, dantza saioa iragarri da Herriko Plazan.



Ogia

▼ **Larunbata 16:** Konde.

▼ **Igandea 17:** Bolintxo.

FARMAZIAK

▼ **Ostirala 15:** Puy/Ruiz.

▼ **Larunbata 16:** Estella/Amez.

▼ **Igandea 17:** Estella/Ruiz.

▼ **Astelehena 18:** Mozos/Mora.

▼ **Asteartea 19:** Camacho/Azk.

▼ **Asteazkena 20:** Puy/Español.

▼ **Osteguna 21:** Guallar/Corcu.

Amet's



• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak

• Zango erremolkeak

• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

ESKULAN IKASTAROA

■ Noiz:

Urtiaren 3tik apirila bukaera arte.

■ Ordutegia:

Astearte eta ostegunetan, 15.30etatik 17.00etara.

■ Non:

Gartzela zaharrean


■ Izen ematea:

Irailaren 28a baino lehen JARDUNen (76 08 19)

■ Prezioa:

- Bazkideak: 5.000 pzta.


- Bazkide ez direnak: 6.000 pzta.



HEZILAN.

Langileentzako lanbide heziketa

ETENGABEKO
LANBIDE-HEZIKETARAKO
ITUNDUTAKO PLANA



IKASTAROAK 95 /2

IKASTAROA	HASIERA	ORDUAK	PREZIOA
WORD Testu tratamendua	95-10-2	40 ordu	8.000 pzta.
ACCESS Datu basea	95-10-30	40 ordu	8.000 pzta.
EXCEL Kalkulo orria	95-11-27	40 ordu	8.000 pzta.
Automata programagarriak	95-10-2	40 ordu	8.000 pzta.
Makina elektrikoak	95-11-6	40 ordu	8.000 pzta.
TORNU Kontrol numerikoa	95-10-16	40 ordu	8.000 pzta.
FRESA Kontrol numerikoa	95-11-15	40 ordu	8.000 pzta.
AUTOCADez egindako diseinua	95-11-6	50 ordu	10.000 pzta.

Fruitu lehiaketa ala sagar lehiaketa?

Pasa den larunbatean Bergara aldean San Martin feria zegoela eta, kotxea hartu eta Antzuolatik bertara hurbildu nintzen. Plazara heldu nintzenean benetan giro ederra aurkitu nuen. Jende ugari zebilen; batzuk odolostea dastatzen, beste batzuk baserritarren fruitu eta barazkiak ikusten eta erosten..., eta bitartean gure baserritarrak han zeuden beraien produktuak txukun-txukun jarrita epaimahaiak zer esango zuenaren zai.

Baserritarren artean Antzuolako bi baserritar zeuden, Lapatzakoak barazki lehiaketan eta Bidurrekoak fruitu lehiaketan. Benetan liluratuta gelditu nintzen, gure lurrak nola ematen dituen horrenbeste barazki eta fruitu klase eta gainera horren itxura ederrekoak.

Eguerdiko ordubatak zirenean oraindik epaimahaiaren eritzia ez zen jakitera eman. Etxera joateko ordua iritsi zen, baina lehiaketan herritarrak zeudenez piska bat gehiago itxarotea erabaki nuen epaimahaiaren erabakiaren zai.

Handik ordulaurdenera hasi ziren sariak ematen. Barazkietan lehenengo saria Lapatzakoarentzat izan zen. Fruituetan bakarrik bi baserrik parte hartzen zuten, ziur nengoen antzuolarrek era-

mango zutela saria, konparaziorik ere ez bait zegoen bata eta bestearen artean. Aramaiokoek sagar klase gutxi batzuk gehiago zuten bitartean, Antzuolakoek bestelako fruituetan izugarriko barietatea erakusten zuten (Aramaiokoek erakusten ez zutena).

Irabazleak nortzuk izan ziren entzutean, zeharo harrিতa gelditu nintzen, antzuolarrei bigarren saria eman bait zieten. Gero Bidurrekoekin egon nintzenean, enteratu nintzen ez dela lehenengo aldia Bergaran hori egiten dietena eta nahiko haserre zeuden.

Hala eta guztiz ere, San martin plazara hurbildu ginenok argi eta garbi daukagu nork merezi zuen irabaztea.

**ANTZUOLAR BAT
NAN: 15.385.834**

Txalotzeko saiakerak

Joan zen larunbatean egin zen ortuko produktuen, loren eta gazten lehiaketa ikustera hurbildu nintzen San Martin plazara eta benetan ikusgarriak iruditu zitzaizkidan gure baratzak ematen dituen produktuak. Plazatik buelta bat eman eta gazta bat erosi nuen postu batean.

Eguerdi partean, Seminarioko arku-petara joan nintzen Bedelkarreko harakinek emandako odolostea dastatzera eta horiek ere benetan ederrak. Sagardo tragotxo batekin primeran jan nituen pare bat odoloste.

Larunbatekoa bezalako ekitaldiak asko gustatzen zaizkit. Baserritarrek euren produktuak plazara ateratzen dituzte eta jende ugari ikusten da kalean. Bestalde, herriko harakinek izan duten ideia oso ona iruditzen zait eta horrelakoak sarriago antolatu beharko lirake, bertako produktuak baloratu nahi baditugu, promozionatu behar direlako.

Beraz, Bedelkarrekoen zorianak eta jarrai dezatela horrelako ideiekin. Bestalde, uste dut, herriko tabernariak kanpoko jendea erakartzeko edota beren bezeroak gustora edukitzeko era horretako saiakerak bultzatu beharko lituzketela.

M. URIBESALGO

Tiira biraka

BITTOR RODRIGUEZ



◆ Bertso jaialdia

JARDUN Elkarteak antolatutako bertso jaialdia izango da datorren larunbatean, irailaren 23, 10etan Mariaren Lagundian. Bertan Sebastian Lizaso, Angel Peñagarikano, Ainhoa Agirreazaldegi, Andoni Egaña eta Jon Maiak hartuko dute parte. Gai-jartzailea Joserra Gartzia izango da. Sarrerak Pol-Pol, Kortazar, Etxepare eta Jardunen salgai.

◆ Bideo ikastaroa

Kultur Etxeko Islada bideo gelak oinarrizko kontzeptuen bideo ikastaroa iragarri du irailaren 25etik aurrera. Astero 6 ordu emango dira, astelehen, asteazken eta ostiraletan 6etatik 8etara. Izen-emateak 4.000 pezeta balio du. Interesatuak Kultur Etxera jo dezakete informazio eske (Telefona: 76 44 46).

HILDAKOAK

Mireia Santamaria Sampietro
Irailak 11, umea
Albino F. P.
Irailak 13, 47 urte

JAIOTAKOAK

Danel Seco Solana
Irailak 5
Maidar Uribe Isado
Irailak 5

Patronatoak UNED zentroa berregituratzea nahi du

Bergarako UNED

zentroa zuzentzen duen Patronatoak ikastetxea berregituratzeko proposamena azaldu zuen pasa den uztailen. Berregituratze horren ondorioz, irakasleen plantila murriztu (bi urteko epean 33 irakasleetatik 12ra pasatuz) eta UNEDeko Euskal Kultur Departamentua (EKD) desagertzeko arriskua dago. Horren aurrean Juantxo Madariaga UNEDeko zuzendariak dimisioa aurkeztu zuen uztailen eta aurreko astean zuzendari berria aukeratzeko lehen bilera egin zuen Patronatoak.

Dirudienez, Diputazioak, Udalak eta Kutxak osatzen duten Patronatoa ez dago prest UNEDek orain arte izan duen modeloarekin jarraitzeko. Peat Marwick asesoriak egindako ikerketaren arabera ikasleen kopurua murriztu eta EKDKo aurtengo matrikula ez zabaltea erabaki du.

Bergarako UNEDek honelako zentruen egitura ezberdina du. Irakasleen plantila bat dago eta horrez gain kolaboratzaile lanak betetzen dituzten irakasleak ere bai (beste zentrutan kolabo-



Bergarako UNEDek 210 milioiko aurrekontua du aurten.

ratzaileak dira denak eta hainbat zentru ez dira egunero zabaltzen Bergaran gertatzen den bezala). Bestalde, EKDK 1978 urte ingurutik martxan dago eta orain Administrazioak eta beste hainbat entitatek (AEK esaterako) sortutako sarea ikusita Patronatoak ez du hain beharrezkotzat ikusten. Matrikula kopuruaren jeitsierak ere zerikusia izan dezake erabaki hori aztertzeko.

1995erako Bergarako UNEDek 210 milioi pezetako aurrekontua dauka. Irakasleen kopuruari dagokionez, ikasketa reglaturtan 1.700 ikasle aritu

dira eta bestelakoetan beste 500 inguru. UNEDeko langileek, nota baten bitartez, horrelako erabaki larriak inolako esplikaziorik gabe hartzea salatu dute. Ikastetxearen egungo osasuna txarra ez dela azaldu eta matrikula normaltasun osoz zabaltzea erabaki dute. Era berean, Victoriano Gallastegi alkateari dei bat luzatzen diote erabaki desegokirik hartu bada atzera botatzeko. Alkateak zera esan digu: "UNEDik onena izatea da gure asmoa, interesatuena berria bera da baina prozesu bonetan momentuz pazientzia izatea eskatzen dut".



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Lau bergarar presori epaiketa Madrilen

Atzo amaitu zen Madrilero Entzutegi Nazionalan Jose Ramon Aiastui "Txerra", Iñaki Arietaleanizbeaskoa "Bizkai", Luis Etxeberria eta Javi Lazkano bergararren kontrako epaiketa. Fiskalak bakoitzarentzat 22 urteko kartzela zigorra eskatu zuen ETako kideak izatearen akusaziopean. Sententzia hemendik 20 bat egunera emango dela espero da. Gogoratuko duzuenez, 1993eko abuztuan Poliziak laurak atxilotu zituen 3 enpresariri dirua exijitzeagatik. Epaietan zehar enpresarietako batek Javi Lazkano eta Iñaki Arietaleaniz errekonozitu zituen baina defentsak Aiastuiren eta Etxeberriaren kontrako probarik ez zegoela esan zuen. Arietaleanizbeaskoak aitortu zuenez Frantziar Carlos Almorza taldeko buruarekin elkarrizketatu zen. Aiastuik Arietaleanizbeaskoa kotxean eraman zuela esan zuen baina ekintzen berri ez zuela adierazi zion epaileari. Aste osoan zehar, egunero, 30 bat lagunez osatutako autobus bat atara da Bergararik Madrilerera epaiketa jarraitu eta herritarrei elkartzuna adierazteko. Horrez gain lau presoen familiarrak ere han izan dira aste guztian zehar.



Javier Lazkano



Oporrak amaitu ondoren, ikasleak ere betiko martxan dira.

Eskolaurrea eta OHoko ikasleak kurtso berria hasi

Institutoetan irailaren 26an hasiko dira klaseak

Herriko hainbat ikastetxek hasiera eman diote aste honetan 1995-96 ikasturteari. Hain zuzen ere, Aranzadi ikastolan, Mariaren Lagundia ikastolan eta San Martin ikastetxean klaseak hasi dira dagoeneko eta bertatik eman dizkiguten datuen arabera eskolaurrean sartu diren ikasleen kopurua joan den urtekoaren antzekoa da. Horrela, Aranzadi ikastolan 77 ikasle berri sartu dira, eskolaurrean denera 216 ikasle daude eta OHOn, berriz, 614 (BBB eta UBI egiteko 101 arituko dira).

San Martin ikastetxean 57 ikasle izango dira eskolaurrean (horietatik 13 berriak) eta beste 156 OHOn. Ereduei dagokionez, 145 ikasle B ereduari (euskaraz eta gaztelaniaz),

63 D ereduari (euskaraz) eta 7 ikasle A ereduari (gaztelaniaz).

Azkenik, Mariaren Lagundian, 44 ikasle jaso dituzte eskolaurrean (guztira 129 daude) eta OHOari dagokionez, 435 ikasleetatik 326 ikasleek D ereduari aukeratu dute eta gainerako 109 ikasleek B ereduari. REMeko 45 ikasleek D ereduari egingo dituzte beren ikasketak eta, azkenik, FP1eko 106 ikasleek A eredukoak dira.

Bestalde, Ipintza eta Miguel Altuna institutuetan irailaren 26an hasiko dira klaseak. Ipintza institutuari 120 matrikula berri egin dituzte eta, guztira, 470 ikasle izango dira ikasturte honetan. Miguel Altuna institutuak ezin izan digu oraindik aurtengo ikasturteko daturik eman.

IBARGUREN PENTSUAK


**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



Astelehenetik aurrera kanpoko igerilekuak itxi eta barrukoak zabalduko dira.

Plenoak igerilekuen arautegi berria onartu du

Aldaketa nabarmenenak ordutegian izango dira

Plenoak udal igerilekuetako arautegia onartu zuen pasa den uztailean. Arautegi berriaren arabera igerilekuetako ordutegia honako hau izango da: neguan, astelehenetik ostiralera, goizeko 8etatik gaueko 9etara eta larunbat, igande eta jaiegunetan goizeko 8etatik arratsaldeko 7etara. Udan, berriz, goizeko 10etatik gaueko 9etara izango dira igerilekuak zabalik.

Udan zein neguan, ezin izango da inol sartu ixteko ordua baino orduerdi lehenago eta bainu eremu hutsik utzi beharko da ordurako. Aldagelak, berriz, ixteko ordua baino ordu laurden lehenago hutsik geratu beharko dira. Igerilekuetako arauak dagokienez, ez da aparteko nobedaderik: aldageletan, pasabi-

deetan eta bainu eremuan txankletak derrigorrezkoak izango dira, bainatzeko bainu-txanoa erabili beharko da, bainatu aurretik dutxatzea beharrezkoa izango da, barruko igerilekuetara bainu jantzia eta toaila bakarrik eraman ahal izango dira, jokuak, saltoak e.a. ez dira onartuko (monitore-sokorristek esaten dutena beté beharko da) eta, azkenik, zuzendaritzak igerilekuetako beharren arabera kaleen banaketa egin ahal izango du.

Bestalde, kanpoko igerilekuak astebukaera honetan itxiko dira eta astelehenetik aurrera barrukoak zabalduko dira.

Azkenik, oraindik ez da zehaztu sauna, solarium eta masaje zerbitzua noiz zabalduko den.

◆ AEK Euskaltegia

Akulu AEK Euskaltegiak irailaren 28ra arte izango du matrikulazio kanpaina zabalik, 10etatik ordu batera eta 5etatik 8etara. Hiru eskeintza izango dira: EGA, Mintza taldea eta Gazte taldea. Argibide gehiago euskaltegian (Masterreka 13an) edota 76 05 18 telefonoan.

◆ Gripeareen txertoa

Gripeareen kontrako txertoa urriaren 31ra arte ondoko tokietan jaso ahal izango da: Anbulategian (10etatik 12etara), Mizpirualde Egoitzan (irailaren 26an, 10-11), Kiroldegian (irailaren 28an, 10-11), San Juanen (urriaren 4an, 10-11), Osintxun (urriaren 6an, 10-12) eta Elorregin (urriaren 10ean, 10-11).

◆ Udal zergak

Herritar guztiei jakinerazten zaie 1995eko Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren eta Ekonomi Ihardueren Gaineko zergaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10ean bukatzen dela. Borondatezko epea amaitu ondoren %20ko gailuzkoa ezarriko da. Argibideak jasotzeko kontuhartzailleetzako bulegoetatik pasa daitezke interesatuak.

◆ Ikastaroak

Ana Orgazek hainbat ikastaro iragarri ditu datozen hilabetetarako: zeramika, enkuadernazioa, eskulanak, sukaldaritza, erlajazio teknikak eta beste hainbat. Argibide gehiago 76 27 30 telefonoan, ordubateetik 3retara.

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**



san martin jaiak

Aritzeta, Urdinak, Arrano, Xamatz, Zuloa eta Lasai-Tokik hartuko dute parte aurtengo danborradan.



San Martinetako ekitaldirik azpimarragarriena danborrada izan ohi da. Herriko elkarteetako danbor jole, sukaldari eta neska banderadunak eta Udal Musika Banda izaten dira protagonistak. Danborrada ostiralean gaueko 10.30etan irtengo da Seminariorik eta Irizar, Barrenkale, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekale, Arruriaga eta Barrenkale zeharkatu ondoren San Martin plazaraino helduko da.



Zapatuan eguerdiko 12etan Gorkako kantina inguruan jokatu den abankargazko armekin plater tiraketan Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik etorritako 20 bat lagunek hartuko dute parte, tartean Jabier Linazisoro

bergararra. Parte hartzaileak antzinako trajeekin jantzita joango dira, Jabier Linazisoro, esate baterako, mikelete jantziko da.

Udal Musika Bandak kontzertua emango du larunbatean, San Martin plazan. Ondorengo pieza hauek eskainiko ditu: E. Rosilloren "La millor terra del mon" (pasodoblea), G. Rossiniren "Sevillako barberoa" (obertura), A. Katelbeyren "Monastegi bateko lorategian" (intermezzo), F. Loeweren "My Fair Lady" (pelikulako musika) eta Miguel G. Bastidaren "San Martin" (euskal irudia).



E G I T A R A U A

OSTIRALA, 15

19.00:

Buruhaundi, kiliki eta erraldioen kalejira, Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzaineroek alaituta.

19.45:

Bonba japoniarrak San Martin plazan.

22.30:

Danborradaren irteera Seminarioriko patioetik, Udal Musika Bandak lagunduta.

24.30:

Joselu Anaiaik taldeak alaitutako dantzaldia San Martin plazan.

LARUNBATA, 16

08.00:

Diana Udal Txistulari Bandarekin.

08.30:

Sokamuturra herriko kaleetan zehar.

11.00:

Meza Nagusia San Pedron. Udal korporazioa joango da eta Udal Musika Bandak eta Txistulari Bandak lagunduko die.

12.00:

Antzinako abankargazko armekin plater tiraketa Gorkako kantina inguruan.

12.00:

Udal Musika Bandaren kalejira.

12.30:

Udal Musika Bandaren kontzertua San Martin plazan.

19.30:

Haurren danborrada, Musika Eskolako bandak lagunduta.

22.00:

Suzko erroberak San Martin ikastetxean.

23.00:

Dantzaldia Belek taldearekin San Martin plazan.

IGANDEA, 17

9.00:

XXII. Pintura lehiaketa, Beart elkarteak antolatuta. Arratsaldean erakusketa.

12.00:

Txakurren salbamenduko ariketak lehengo Zerrajerako orubeetan.

18.30:

Bikoteen dantza askatuko XI. Txapelketa, Moises Azpiazuren oroimenez, San Martin plazan.



Zaragozana pirotekniak suzko erroberrez argituko du larunbat gaua. San Martin ikastetxeko patiotik jaurtiko dituzte su artifizialak.

Nagusiengandik testigua hartu eta herriko haurrak izango dira zapatu iluntzeko danborradako protagonistak. Arratsaldeko 7.30etan irtengo dira San Martin plazatik eta Bidekurutzeta, San Pedro, Artekale, Arruriaga eta Barrenkale zeharkatu ondoren, berriz ere San Martin plazara itzuliko dira.



Moises Azpiazuren omenezko dantza sueltoko txapelketa ordubete aurreratu da eta arratsaldeko 6.30etatik aurrera jokatu da igandean San Martin plazan. 15 urtetik gorako 20 bat bikotek hartuko dute parte eta bost lehenengoek eramango dute saria. Lehenengoak 30.000 pzta. eta trofeoa jasoko du.



BEART herriko artisten elkarteak pintura lehiaketa antolatu du iganderako. Goizeko 9.30etan emango zaio hasiera eta arratsaldeko ordu bietarako aurkeztu beharko dira lanak Kultur Etxean. 80.000 pzta. eta trofeoa eramango du lehenengo sailkatzen denak. Bigarrenak, berriz, 65.000 pzta. eta trofeoa eta hirugarrenak, 50.000 pzta. eta trofeoa.



Elorrioko salbamenduko txakurren taldeak erakustaldi ariketak egingo ditu igandean eguerdiko 12etan Zerrajerako orubeetan. Propio jarritako trabak gainditu, eskilarak igo, suzko heziak gainditu eta bestelako ariketak egingo dituzte txakurrek. Bergaran horrelako erakustaldi bat antolatzen den lehen aldia da hau.



Amaia Zabaleta, Mongoliako ordezkari batzuekin.

Amaia Zabaleta

Txinako konferentziaz bueltan

Amaia Zabaleta abokatuak Erakunde Ez Gobernutarrek, ONG delakoak, Pekinen egin duten Munduko Emakumeen Konferentzian parte hartu du, EHNEko EBEL (Baserriko Emakumeen Elkarte) ordezkatzu.

Mundua emakumeen ikuspegitik aztertu nahi izan duen Konferentzia honetan lan interesgarria egin dela azaldu digu Zabaletak.

- Nolako esperientzia izan da?

- Oso positiboa, benetan liluraturik bueltatu gara Txinatik. Hemendik 40 bat lagun joan ginen Emakunderekin eta gehienak Konferentzia alternatiboan izan gara.

10 eguez gogor egin dugu lan eta kontaktu pila bat egin ditugu, alde horretatik oso aberatsa

izan da. Giro oso atsegina egon da eta lehen aldian izan da mundu osoko ordezkariak biltzen ginela. Orain 10 urte Nairobini izandako Konferentzian 5.000 emakume inguru bildu ziren eta aurten, berriaz, 44.000 lagun bi konferentziak zenbatuz.

- Zein zen eguneroko programa?

- Goizeko 9etan hasen ziren tailerrak eta arratsaldeko 7ak arte bi orduko izaten ziren. Aukera ezberdinak zeuden eta arazo bakarra itzulpena izan zen. 300 bat salla izango ziren eta itzulpena sei salatan bakarrik zegoen. Goizean Libano-

koen tailerrera joaten ziren, bazkaltzen Chadeko batzuekin elkartzen ziren, gero Mozambiquekoekin... Bukatzeko, tailerrak amaitu ondoren, iluntzean, errejio edo kontinente ezberdinetako musika eta dantza jaialdiak egoten ziren. Alde sozial eta kulturaletik izugarri aberatsa izan da

Manifestazioak ere izaten ziren eguneroko: Kubako blokeoa, Palestina, Tibet, Polarisioa, Frantziako proba nuklearren aurka... Mundu osoko arazoak plazaratzen ziren han. Kanpotik komentatu da ia entzerratuta egon garela baina ez da horrela izan.

Ez dugu inolako arazorik eduki. Antolakuntza? Ba lehen munduan eginda hobeto egingo zen behar bada, baina ahal duten guztia egin dute txinoek. Dena den, ea zeinek daukan honelako konferentzia bat antolatu eta horrenbeste jende hartzeko ahalmena.

- Konferentzian zuek lanik aurkeztu duzue?

- Euskaditik joan ginen taldeetatik gu izan ginen tailer edo lan bat aurkezteko aukera izan genuen bakarrak. Hemengo ordezkariak gure esku geratu zen eta azken egunean gure egoeraren berri eman genuen tailer batean.

- Eta zein ikuspegi eman duzue?

- EBELen historia azaldu genuen: noiz sortu zen, zer egin dugun, zein formazio tipo ematen den eta zertara dedikatzen den EBEL. Horretaz gain, Seguritate Sozialarekin ditugun arazoak, transmisio problematika eta beste hainbat aspektu plazaratu genituen. Daukagun arazo nagusia zera da: emakumea ez dela langile bezala onartzen eta etxeko lanen jarraipen bezala baserriko lanak ere egiten dituela. Baina guk lan horren errekonozimendua eskatzen dugu. Alde horretatik Latinamerikako baserritarrekin asko kontaktatu dugu. Beste herrialde guztien egoera eza-gutzeko eta gurearekin lanean jarraitzeko primeran etorri zaigu Konferentzia.

"Emakumea ez da langile bezala onartzen toki askotan"

Antxintxika

Euskaraz ikasteko prestatzen

Irailaren 4an hasi eta astelehena bitartean OHO bukatu eta Heziketa ertainean hasi behar duten 14 ikasle Antxintxika dabiltza. Udaleko euskara departamentuak eta JARDUNEK bultzatutako ekimenaren helburua OHOn B ereduan ibili diren gaztetxoek D ereduan euskaraz arazorik ez izateko euskaraz trebatzea da.

raz bitzezin izan dugulako". Iker García ere bat dator Anak esandakoarekin: "gure artean gaztele-raz bitzegiteko obitura bat-batean kentzea oso zaila da".

Matematikako terminologia

10etatik arratsaldeko 8ak bitartean egoten dira

gaztetxoak Antxintxikan. Goizean eskola izaten dute udal euskaltegian: matematika eta euskera. Eguna hasteko, 11.30ak

bitartean mate, ikasturte berrian euskaraz emango baitute. Ane Iturraldek, mate erakusten dienak adierazi digunez, "orain

Goizean 10etan hasi eta eskola izaten dute. Ordubatean bazkaldu eta arratsaldean, era guztietako iharduerak egiten dituzte

Goizeko 10etan elkartu eta 10 ordu elkarrekin emango dituzte 15 neska-mutilek. Gehiago luzatu gabe gaztelararako duten joera baztertu eta euskaraz hitzegiten saiatuko dira. Anak esan digunez oso zaila da eurentzat euskaraz mintzatzea: "gauza batzuk euskeraz esaten ez dakigu eta tarteka gaztelarara jotzen dugu; zenbaitetan nabastuta egiten dugu, euskaraz eta gaztelaraz. Begiraleekin euskeraz egiten dugu eta ondo moldatzen gara, baina gure artean zailagoa da beti gaztele-



Euskarako klaseak emateaz gain, ondo pasatzeko aukera ere izaten dute. Argazkian, Albina urtegitira egindako irteera.

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA



Barrenkale, 31

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATGIA,
SELF-SERVICE-A

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

arte gazteleraz emandako zenbait kontzeptu euskaraz ikasten ari dira. Beraz, maten terminologia lantzen dugu". Yoana Rocharen arabera, zailenak zatikiak dira. "Erraza da, dena ulertzen da baina dena barneratzea kostatu egiten da. Hitz guztiak baina antzekoak dira... batuketa, batugua..."

Euskeran irratsaioak

11.30etan ordu laurdeneko atsedenaldiaren ostean euskerako eskola hasten da. Felipe Inarrak, Antxintxikako koordinatzaileak dioskunez, "ez dira betiko euskarako eskolak, ez dituzte ariketa analitikoak eta egiten, euskera tresna moduan erabiltzen dute. Horretarako kazetaritza lana egokia dela eta irratarako saioak prestatzen ari dira: magazina eta informatiboa".

Ikerrek ez du kazetari izateko asmorik, baina ohiko euskarako eskolak baino nahiago omen du euskera beste era honetara lantzea. "Eskolan beti ariketak egiten eta aditzarekin bueltaka ibiltzen gara Nor-Nori-Nork, e.a. eta roilo bat da".

Anak arazorik gehien Bergarako euskararekin duela aitortu digu: "nahiz eta betidanik euskara batua ikasi, Bergarako euskara ulertzen dut, baina ez dakit hitz egiten, adi-



Bazkalorduak ere elkarrekin pasatzen dituzte.

tzak ez zaizkit ateratzen".

Ordubatean bazkaria

Euskeratik irten eta antxintxika, kartzela zaharrera joaten dira bazkaltzera. Hiruzpalau menuren artean izaten dute aukeratzeko, beraz, ez daude kexatzeko moduan. Mahaia jaso, fregatu... lanak denen artean, txandakatuz egiten dituzte. "Neri ez zait gustatzen

fregatua egitea baina binaka egiten dugunez ondo pasatzen dugu" dio Ikerrek. Bazkalostean denbora libre izaten dute norberak nahi duena egiteko: ping-ponean, futbolinean, nahiz mahai jokuetan ibiltzeko.

Arratsaldeko ekintzak

Gaztetxoek gustokoen dituzten orduak, dudarik gabe, arratsaldekoak dira, horretan denak datoz bat.

"Ondoen arratsaldeko ekintzetan pasatzen dugu. Esku-lanetan karpetak eta txapak egin ditugu; piraguan ibiltzera joan gara; eskalatzera ere bai; bizikletaz Urkulura atera ginenean ere primeran pasatu genuen. San Prudentziora iritsi baino lehen bi gupil zirlatu zitzaizkigun eta azkenean Usako baino urrutiago ezin izan ginen joan" dio Yoanak.

Alazne Pardina eta Ramon Agirrezabal begiraleekin ibiltzen dira arratsaldeetan. "Oso ondo pasatzen dugu, edozeinentzat dira erakargarriak egiten ditugun ekintzak" diote begiraleek. "Hauekin ibiltzea beharbadu"

"14-15 urtekoekin ibiltzea txikiagoekin ibiltzea baino zailagoa da duten adinagatik" Ramon eta Alazne, begiraleak



umelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

txikiagoekin ibiltzea baino zailagoa da duten adinagatik, baina esperientzia bezala aberatsagoa ere bada". Goizean 10etan hasitako saioa arratsaldeko ekintzarekin, 8etan bukatzen da.

Asteburuetan kanpora

Asteburu honetan, atzo, ostegunean joanda, Abaltzisketan dira 15 lagunak. Koordinatzaileak azaldu digunez, "astean elkarrekin ez dituzte 24 ordu pasatzen eta gainera 15 egun dira, beraz borrelako proiektu baterako ez da asko. Arratsaldeko Setatik aurrera eguna aprobetxa daitekeenez, egunari zuku gehiago ateratzeko, asteburuetan aterpetxeetara joaten gara. Joan zen asteburuan Orion izan ginen eta oraingoan Abaltzisketara joango gara".

Orion primerako asteburua pasa dute, izan ere Zarauzko euskal jaia eta surf txapelketa ikusteko aukera izan baitute: "Orion hondartzan, piszinan, futbolea... denetarik egin dugu. Gainera surflari ospetsu eta guapoak ere ikusi ditugu, Kelly Slater..." dio irribartsu Verónica Eugeniok. "Gainera gu egon ginen aterpetxean Orioko arraunlariak zeuden kontzentratuta eta guk emandako animoengatik irabazi zuten igandeko saioa". Abaltzisketarako ere ez

zuten ilusiorik falta, "asteburu zurian goizean klasea eta arratsaldean ekintzak izaten dira; egunero desberdina egin arren, badakigu eguna nolakoa izango den, aterpetxera joandakoan, ostera, kanpoan gaude, libre eta egunak oso oso desberdinak dira".

Felipek dioenez Abaltzisketa herri euskalduna da eta proiektua aurrera eramateko egokia iruditu zitzaizen bertako aterpetxe batera joatea. Asteburu honetako asmoa, besteak beste, inguruko herriak (Amezketeta, Orendain...) ikustea eta Txindokira igotzea da. ■

"Orion primeran pasatu genuen. Gure aterpetxean Orioko arraunlariak zeuden eta guk emandako animoengatik irabazi zuten igandeko saioa"



Joan zen astean Arrasate Press eta Arrasate Tebista bisitatu zituzten.

Esperientzia positiboa

Felipe Iñarra, Antxintxikaren koordinatzailearen esanetan, Antxintxikaren helburua OHO B eremuan egin dutenek BBB, LH eta REM D eremuan egitean euskararekin arazorik ez izatea da. Horretarako 15 egunetan euskaraz bizi eta euskara, batez ere matematikako terminologia, lantzen da. Iaz hasi zen proiektua Bergaran, aurreko urteetan gaztetxoak kanpoko begiraleekin Abaltzisketa aldera joaten baitziren. "Kostu handia zuen eta gainera Bergaran euskaraz funtziona daitekeela erakutsi nahi bada, kanpora joateko proiektua herrian bertan gauzatzea erabaki zen". Aurtengo esperientzia ere guztiz positiboa omen da: "Hasieran gazteleraz gehiago hitzegiten zuten, baina egunek aurrera egin ahala euskeraz gehiago hitzegiten dute". Euskararen jarraipena begiraleek nahiz gaztetxoek semaforoaren sistema erabiliz egiten dute. "Gaztetxoek egunean lau aldiz kuadro bat betetzen dute: norberaren izenaren ondoan kolore bat margotu behar dute, gorriak euskeraz ez dutela hitzegin esan nahi du, laranja euskeraz tarteka aritu direla eta berdeak, euskeraz egin dutela. Bakoitzak bere kuadroa betez norberaren azterketa egiten du eta hitzegiterakoan euskeraren aldeko jarrera dakar". ■

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
 LOS CAZADORES
 Kafea da gure berezitasuna
 Zubieta, 26 BERGARA



GAZTELU
BURDINAKI DENDA
 Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Aukera izanez gero, zer ekarriko zenuke San Martinetarako?



Jon De Pedro

18 urte, ikaslea

Ez dakit, futbito txapelketa bat eta herri kirolak antolatzea gustatuko litzaidake, herri kirolak oso atsegin ditut eta.



Higinio Ugarteburu

66 urte, jubilatua

Espektakuloren bat: berbenatxo bat edo horrelako zerbait ondo egongo zen. Rebistaxoren bat ekarri ezkeru ba hobeto.



Bitori Ormaetxea

35 urte, langilea

Tanborrada hobetuko nuke, antolaketa eta jantzien aldetik batipat. Ez zait besterik bururatzen momentuan.



Maite Loidi

14 urte, ikaslea


Nik musika taldeak ekarriko nituzke: Maixa eta Itziar, Gozategi anaiak ere bai...



Agurtzane Oroiz

31 urte, langilea

Ez dago gauza haundirik: arratsaldetan umeendako jolasak ondo egongo ziren eta dantzaldiak zertxobait indartzea ere falta da.



Felix Mujika

48 urte, langilea

Ez dakit nik. Dagoenarekin konformatzen naiz, guretako ondo dago eta. Gauean beharbada musika talde hobeagoak...

INGELES FRANTZESA

MATRIKULA ZABALIK!!

95-96 IKASTURTEA

- HASIERA: **Urriak 2**
- MAILA GUZTIAK
- ADIN GUZTIAK
- Haurrak
- Gazteak
- Helduak

INFORMAZIOA:

Begarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87





Artxakurrak

Artxakurrak protagonista dira uda partean. Gizonaren lagun lehialena den animaliak lanik izaten du dituen birtuteak milaka pertsonaren aurrean agertzen.

Oñatin, irailaren 24an egingo den Nazioarteko lehiaketak badu historia luze eta emankorra. Urte asko dira, Reyes Korkostegi alkatea eta Jose Maria Agirrebalzategi apaiza horretan hasi zirela. Geroztik, etengabe hamaikatxo ikuski-zun ederrik eskaini da Errosario aurreko igandean. Txakurrak ditugu berriz ere azken aginduak jasotzeko prest. Kirola? Artea? Bietatik zerbait edo asko duela diogu guk.

Baina Oñatin beste toki guztietan bezala, txakurrak hasieran egin beharko duen lana ez da berari, propio dagokion eginkizuna. Hiru ariketa izaten dira lehiaketan: lehenengoa, txakurra bandera tartean eramatea artaldea dagoen tokiraino; bigarrena, artaldea hesi batetik pasatzea eta hirugarrena, hesi barruan sartzea.

Azken biak artaldearekin uztarturik daude. Oso ongi lotuta. Hori bai da txakurraren nahiz artzaiaren eguneroko bizitza. Baina lehenbiziko ariketa, gure uste apalean guztiz desegokia dela aitortu behar dugu, artifiziala. Eta entrenamendua ere artifizialki egin beharreko ariketa da. Adibide gisa, txapelketa aizkolariari egurra moztetik aparte korrika nola egiten duen frogara ipintzea bezalatsu izango litzateke.

Artzaia, txakurra eta artaldea elkarrekin doaz. Beste ariketarik ez da behar. Artaldearekin lotuta doazen ariketak aski dira.

Andres OSA "Sakona"



"...In Corpore Sano"

Zuk ere, bizitza honetan gehien arduratzen zaituzten gauzetaz galdetuz gero, seguru zeure eta maite dituzunen osasuna lehenengo postuetan jarriko zenuela. Zeinek ukatu, gure eguneroko bizitzan plazerrik haundienetarikoa jan edana denik? Edota emakume askoren (noizko gizonak berdintasunez sukaldean?) eguneko lanik arduratsuen "tripa dontsu" horri erantzuna ematea denik?

Hala ere, joan zen astean "Nekazaritza Biologikoaz" informazioa emateko antolatutako hitzaldian dozenerdi lagun baino ez ginen izan, zapatuko azoka berezian izugarritzko jendetza izan arren. Baina, arduratzen ote gara benetan jaten dugunaz? Ba ote dakigu gero, barazkiak produzitzeko edo ganaduak gobernatzeko era desberdinek (produktu kimiko, hormona...) gure osasunean duten eragina?


"Jaten duguna" garela jakin arren, kontsumo gai honetan, ustez aurrera joan arren atzeruntz doazen herrialdeen joerak ez ote gabiltza kopiatzen? Gure gorputzak, inguruak, lur-urek, gure herriak, naturalki, izadiaren legeak errespetatuz sortutako produktu fresko, saporetsu, osasuntsuak eskatzen dituzte. Gure baserrietan hala produzitu da betidanik. Nekazaritza biologikoak produzitzeko betiko era hori, guregandik hain getu dagoena, berreskuratu nahi du.

Zeure ere, ez zaitetz mugatu urtean pare bat aldiz feria berezietan paseatu eta produktuak mirestera! Zeure esku duzu egunero bertako produktuez gozatzea, osasunarentzako onak diren konfidantzan. Anima zaitetz, poltsikoak ere eskertuko dizu eta, merke usteko asko oso garesti ateratzen baita.

Maite ARISTEGI



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea




Tfnoa: 77 14 24





Eskuman ikus dezakezue Díaz De Zerio egindako eskultura. Goian, Xabier Díaz De Zerio.



■ **Artzainen omenezko eskultura**

Xabier Díaz De Zerio irakasle eta eskultore bergararrak artzai eta mendizaleen omenezko eskultura-iturria egin du Vidangozen, Nafarroan. Díaz De Zerio betidanik izan du Vidangozekin harremana bere aita bertako irakaslea izan baitzen eta txikitatik bertara joan izan delako. Orain, egurra, harria eta burdina erabiliz, Erronkariko artzai ibiltariei (Vidangozen bi geratzen omen dira) eta Uztarrozera abiatzen diren mendizaleei omenaldia eskaini die "**Hasta arriba-Goraño**" izenburuko lanarekin.


■ **Tostoiak eta errellenoak Alderdi Egunerako**

Azken 16 urteotako ohiturari jarraituz, Bergarako **Goxo-Toki, Larrañaga, Mujika** eta **Raizabal** gozotokiek 1.450 errelleno kaxa eta 500 tostoi pakete (libra erdikoak) egin dituzte igandean EAJk Salburuan (Gasteizen) ospatuko duen Alderdi Egunerako. Itxura denez, eta daukaten fama justifikatuz, Bergarako tostoi eta errellenoek arrakasta haundia izaten dute Alderdi Egunean eta askotan eguerdirako agortu egiten omen dira. Goxozaleek probetxua aterako diote bai herriko pasteleroek azken egunotan egindako lan intentsiboari...



BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31



JAUJA KIROLAK

Irizar, 2
☎ 76 14 95

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Larunbateko lehiaketan ikus ahal izan ziren produktu bikainak, bi argazkietan.



■ Lehiaketa arrakastatsua

Sekula baino jende gehiago hurbildu zen joan zen larunbatean San Martin plazara barazki, lora, fruitu eta gazten lehiaketa ikustera. Guztira 41 partehartzaile izan ziren lehian: 10 barazki lehiaketan, 3 fruituetan, 8 loretan eta 20 gazta lehiaketan. Barazki lehiaketan, Antzuolako Lapatza baserriko **Tomas Larrañagak** eraman zuen lehen saria. Lehen bergararraren saria, Urrupain Gainekoa baserriko **Maria Egizabalek** jaso zuen. Fruitetan, ostera, Aramaioko **Jose Luis Madinak** irababazi zuen. Loren atalean, Bergarako Etxe-Alaiko **Fidela Gabilondok** irabazi zuen eta Latxa ardi-esnez egindako gazten sailean, azkenik, Bergarako Lopaloste baserriko **Begoña Abarrategik** eraman zuen. Lehiaketaren inguruan nobedade bat izan da aurten, hain zuzen ere, Bedelkarreko harakinek antolatutako odoloste dastaketa. Jendearen erantzuna ezinhobea izan zen, eguerdi parterako saldu baizituzten hasieran utzitako

80 kiloak eta beste 40 kilo ekarri behar izan zituzten herriko zortzi harategitak. Bestalde, Bedelkarrek zozketatutako **txerria 17.980 zenbakiarentzat** izan da. Oraindik ez da boletoaren jabea agertu eta 15 eguneko epea du Bedelkarrekoekin harremanetan jartzeko.



Zertan dihardute ba?



Elsa Manso 27 urteko bergararra, Daniel Calparsoro zine zuzendariaren bigarren pelikulan, "Pasajes" izeneko, lanean dihardu. Zinegile donostiarraren lehen pelikulan bezala ("Salto al vacío"), honetan ere produkzio arduraduna izango da. Bigarren luzemetrai hau Pasaia, Erreterria, Irun eta Donostian errodutuko du Calparsorok urri amaieratik aurrera, baina Elsa buru-belarri lanean ari da pelikula prestatzen. Elsa Mansok Bajo Ulloaren "La Madre muerta"-n eta "Sálvate si puedes" eta "Hotel y domicilio" pelikuletan produkzio laguntzaile bezala aritu izan da. "Pasajes" luzemetraian, Oihana Gardoki bergararrak ere hartuko du parte zuzendari meritorio lanetan. Pelikula, Almodobarren "El Deseo" etxeak produzituko du.



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

Joxe "Itxumendi"

Joxe "Itxumendi"

24 urtetan eguraldiaren berri eman du Herri Irratian. Duela 4 urtetik jubilatuta dago baina oraindik ere askotan egiten dizkiote eguraldiari buruzko galderak. Hain gustoko duen Elusuko elkartearen aurkitu dugu.

- Zein da zure abizena?
- Badiola, baina denentzat Joxe Itxumendi edo Joxe Benta naiz.
- Instrumenturik jotzen?
- Ez, baina trikitia oso gustoko dut.
- Eta dantza egitea?
- Oso dantzaria izan naiz, baita emaztea ere.
- Hotzaren kontrako erremediorik?
- Egurrezko sua.
- Eta katarroaren kontrakoa?
- Tabakoa, duela 48 urtetik egunean bi pakete erretzen ditut.
- Gustoko urtaroa?
- Udazkena, hegoaizeagatik.
- Disfraz bat?
- Beti disfratatuta ibiltzen naiz.
- Euritakozalea?
- Elusun arriskutsua da, ezin da erabili.
- Elusu bezalako parajerik ba al



"Eguraldiak ikaragarri eragiten dio pertsonari: hegoaizearekin tenete eta argi ibiltzen da, mendebalarekin berriz, motel eta poliki-poliki. Urte batean Benidormera joan ginen oportetara eta ia beroak akabatu ninduen"

dago?

- Santutxutik Irimorainoko moduko paseorik ez.
- Mendi bat?
- Irimo, Agerreburu, Pol-Pol, Hirukurutzeta...
- Astebururako plan on bat?
- Gipuzkoako herrixka eta auzoak ikustea.
- Noiztik eguraldiari begira?
- Txikitatik, aita eta etxekonekoa goizero eguraldiaz berbetan entzuten nituelako.
- Komunikabideetako eguraldi adituek diotena entzuten duzu?
- Bai, gehien Andoni Aizpuru gustatzen zait.
- Asmatzen al zenuen?
- Huts egingo nuen, baina asmatu ere bai.
- Erraza al da asmatzen?
- Bai, baina hodei lainoekin kontuz ibili behar da, traidoreak dira.
- Tresneria ona dago gaur egun.
- Baina onena mendi puntan jarri eta zelako haizea dagoen ikustea da.
- Jendea beti eguraldiaz galdezka ibiltzeak ez zaitu haserrearazten?
- Ez, nekez haserretzen naiz.
- Asteazkenean tenporak izan ziren. Sinisten duzu?
- Ez, tenporetan egun zehatz bateko gauerdiko eguraldiak ez du erabakitzen, inguru horretako egunetako eguraldiak baizik.

**SANTOS
IRRATI-TB**

**ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

SIRIMIRI

jatetxea

**PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.**

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19



Mikel Gaztelurrutia

PIANO ETA SOLFEO KLASEAK

(Goi mailako titulaziodun maisua)

☎ 76 50 59

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32

☎ 76 11 50

ETXEBIZITZA

3 gelatako **pisua** behar du-
gu Bergaran. ☎ 902 11 22
33/ 98 12 74 (Kutxa).

Pisua salgai Antzuolan.
☎ 76 60 39.

Garaje bat alokatzen da.
☎ 76 55 50.

Baserría salgai Elosun.
☎ 76 57 24.

Garajea alokatzen da Kruz
Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren.
Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Pisua alokatzen da San
Pedron. ☎ 76 13 23.

Garajea salgai prezio one-
an. ☎ 76 03 70.

Pisua salgai Zarautzen.
☎ 78 19 50.

Pisua salgai Martokuan.
☎ 76 35 50.

Etxea salgai Osintxun.
☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Koldo
Eleizalden. ☎ 76 25 20.

Garajea salgai Burdiñaten.
3 milioi. ☎ 76 31 79.

Estudioa alokatzen da
Benidormen (bi pertso-
nentzat). Iraileko bigarren
hamabostaldia, 30.000
pta. ☎ 76 23 43.

DENETARIK

Pisua konpartituko nuke
Bergaran. ☎ 76 38 32.

Kawasaki ZXR 750 motor
bat salgai. ☎ 76 42 47.

Yamaha XT-E Trail moto-
rra salgai. ☎ 76 03 40.

Mobilette Cady motorra
salgai. ☎ 76 13 11 (gauetz).

Mendiko bizikleta salgai.
☎ 76 15 76 (Xabi).

Karabana bat salgai (ber-
ri-berria). ☎ 76 10 09.

Squier Stratocaster kita-
rra salgai. ☎ 76 15 07.

Honda CBR 600 F moto-
rra salgai. ☎ 76 34 10.

Karrerazko bizikleta sal-
gai. ☎ 76 18 78.

Bilbon pisua osatzeko 3
lagun behar dira.
☎ 76 16 51/75 17 07.

Vespa Iris 200 motorra
salgai. ☎ 76 08 51.

Kontzertuko **Pigini akorde-
oia** salgai. Kromatikoa eta
konbertiblea. ☎ 45 87 06
(15-16, 10etatik aurrera).

Neska bat behar da Donos-
tian pisua osatzeko.
☎ 76 42 76.

Leioan pisua betetzeko
bi pertsona behar dira.
☎ 76 30 82 (Aintzane).

Ikasle batek pisua kon-
partituko luke Deustun
edo Ibarrekolandan (Bil-
bon). ☎ 76 32 85 (Ivan).

LANA

Aleman klaseak ematen
dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

Haurrak zaindu eta etxe-
ko lanak egiteko neska
euskaldun bat behar da.
Interesatuak deitu lehen
bait lehen. ☎ 76 06 69.

Aleman diplomatuak kla-
seak emango lituzke.
☎ 76 00 81 (Idoia).

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxeak garbitu edo haurrak
zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Matematika eta zientzie-
tako klaseak. ☎ 76 06 50.

**Gutxitu psikikoen hezi-
tzaile** batek gutxituak, za-
harrak edo haurrak zain-
duko lituzke. ☎ 76 52 08.

OHOko klaseak ematen di-
ra. ☎ 76 21 00 (Iñigo).

Neska euskaldun batek et-
xekeko lanak egin eta haur
edo zaharrak zainduko lituz-
ke. ☎ 76 16 22 (Nere Amaia).

Esperientziadun neska
batek ingeles klaseak em-
aten ditu. ☎ 76 28 16.

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta BBBko klaseak.
☎ 76 42 08 (Nere).

Ingeles Filolojia duen
neska batek lan egingo
luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Pertsona bat behar da
haurrak zaindu eta etxeke
lanak egiteko. ☎ 76 01 11.

Hezitzaile batek zaharrak
edo haur atzeratuak zain-
duko lituzke. ☎ 76 38 99.

LA PUERTA AL INGLES

Burdinate, 5 BERGARA • Tfnoa: 76 30 01 • Faxa: 76 00 32
Erdiko kale, 37 ARRASATE • Tfnoa: 79 90 36 • Faxa: 76 00 32

ingelese ••• alemana



ONDORENGO AZTERKETETARAKO
PRESTATUKO ZAITUGU

ESKOLA

IRAKASLEAK

BESTE ZERBITZU BATZUK

- The Cambridge Certificates (Ingelesa)
 - Key English Test (KEY)
 - Preliminary English Test (PET)
 - First Certificate English (FCE)
 - Cambridge Advanced English (CAE)
 - Cambridge Proficiency English (CPE)
- Hizkuntza Eskola Ofizialekoa (HEO
Ingelesa eta Alemana)
- The Goethe Diplomas

"La puerta al ingles" 1985ean sortu zen,
eta bere helburuetako bat Deba garaia
irakasle natiboz hornitzea da.
Eskolak tresneriarik aurreratuen darabil:
bideo, multimedia, ordenagailu, etab.

Bai ingeleseko eta bai alemaneko
irakasleak lizentziadunak dira beren
herrietan eta TEFL titulua dute. Herrialde
desberdinetako (azentu desberdinetako)
irakasleak dira, hala ikasketa egokiagoa
bermatu ahal izateko.

- Ikastaroak enpresetan edo etxeetan.
- Bakarkako klaseak.
- Hizkuntza atzerrian ikasteko
aholkularitza.

BONOFOTOA



Celestina Larrañaga

Celestina Larrañagak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurreko galdera berak asmatu baitu. Argazkietan agertzen ziren iturriak non aurkitu ditzakegun galdetzen genizuen eta erantzuna, **Elosuko Santutxun eta Irizar parkean**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Celestina Larrañagari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Nork margotu zuen udaletxean aurkitu dezakegun mural eder hau?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Kirol eskaintza zabala

Udal Kirol zerbitzuak

Kirol Zerbitzuak 15 urtetik gorakoentzat mantentimendu gimnasia, aerobika, mantentimendu gimnasia uretan, tenis eta elbarruentzako jarduera fisiko egokituak ikastaroak antolatu ditu.

Mantentimendu gimnasia astelehen, asteazken eta ostiraletan izango da Labegaraieta kiroldegian goizeko 10etatik 11etara eta arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Mtez. de Irala gimnasioan. Astearte eta ostegunetan, berriz, Mariaren Lagundian arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara.

Aerobika astelehen, asteazken eta ostiraletan burutuko da Ipintza institutoan hiru txanda ezberdinetan arratsaldeko 6etatik 9etara. Mantentimendu gimnasia uretan aritzeko beharrezkoa da zerbitzuko bazkide izatea eta astearte eta ostegunetan arratsaldeko 8etatik 8.45era izango da. Tenis ikastaroa ere astearte eta ostegunetan izango da Labegaraieta kiroldegian 19.30etatik 20.30etara.

Iharduera fisikoak elbarrituentzat astearte eta ostegunetan izango dira arratsaldeko 6etatik 7etara Ipintza institutuan. Ige-

ri ikastaroetan parte hartzeko derrigorrezkoa da bazkide izatea eta adin bakoitzerako ikastaro egokituak daude.


Lehen taldean 3 eta 4 urteko haurrak dauden bitartean, bigarrenen 5 urtetik 12ra bitartekoak eta azkenik, 3. taldean 13 urtetik gorakoak. Kirol ikastaro guzti hauetan izena emateko eperik ez dago, baina plazak mugatuak dira, beraz, informazio gehiago jasotzeko jo lehen bait lehen Udaleko Kirol Zerbitzura.



Aurten aerobika egin nahi dutenek izena eman dezakete jadanik.

Golf ikastaroa

Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuek antolatuta golf ikastaroak izango dira irailean eta urrian. Irailaren 23 eta 24an hobekuntza ikastaroa izango da eta Deba Garaiko edozein Udal Kirol zerbitzuetako bazkideentzat 5.000 pza. balio duen bitartean, gainontzekoek 7.500 pza. ordaindu beharko dute. Bestalde, golfean jokätzen ikasi nahi dutenek irailaren 30etik urriaren 22ra bitarteko 3 asteburuetan aukera izango dute. Horretarako, Kirol Zerbitzuen bazkideek 17.500 pza. ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 20.000 pza. Prezio honetan ikastaroa, aterpetxean lo egitea eta janariak sartzen dira. Ikastaroak Lagran, Araban, izango dira eta 16 urtetik gorakoentzat dira. Lehenengo ikastarorako izena emateko epea irailaren 19an bukatzen da eta bigarreneko irailaren 25ean. Izena emateko Kirol zerbitzura joan edo 77 91 33 telefonora deitu.



• PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA.

• LOGOPEDIA, LOGOFONIATRIA:

**AHOTS, HIZKETA ETA LENGOAIA
ZAILTASUNEN BIRGAITZEA ETA LARINGEA
KENDUTAKOEN BIRGAITZEA.**

CEDICO, Koop. Elkarte

Herri Lagunak, 1 behe (Seminarioko patiotik sarrera) ☎ 76 14 80

Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal



**ESKUALDEKO
ZENTRUA
BERGARA**

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

Eskola kirola: izena emateko epea zabalik

Udal kirol zerbitzuak, herriko ikastetxeek eta kirol elkarteek aurtengo eskola kirolaren egitaraua osatu dute. Adinaren arabera 3 maila osatuko dira. 1988-89an jaiotakoek kirol askotarikoa, aurrekirola eta kiroletarako prestakuntza egiteko aukera izango dute.

Jarduerei dagokienez Aranzadi ikastolakoek honako ordutegi hau izango dute: astearte eta ostegunetan 17.15etatik 18.15etara eta 18.15etatik 19.00etara. Mariaren Lagundikoek, aldiz, asteazken eta ostiraletan 16.30etatik 17.30etara eta 17.30etatik 18.30etara izango dute kirola egiteko ordutegia.

Benjaminek, 1986-87an jaiotakoak eta alebinek, 1984-85ean jaiotakoak, astean zehar astelehenetik ostegunera bi egunez izango dute kirola egiteko aukera, lehen txandan 17.00etatik 18.00etara eta bigarrean 19.00etatik 20.00etara. Benjaminek eta alebinek programan dauden kirol guztiak egin beharko dituzte eta urteko kuota 2.000 pzta.koa da. Infan-

Era guztietako kirolak egin ahal izango dituzte 8. mailara arteko haurrek, Eskola kirolean.



tilentzat, 1982-83an jaiotakoentzat alegia, atletismoa, igeriketa, eskubaloia, saskibaloia, futbola, xakea, pelota, badminton, gimnasia erritmikoa, txirrindularitza eta piraguismoa egiteko aukera izango da. Nahi duenak bi kirol aukera ditzake,

baina bat banakakoa eta bestea taldekakoa izan beharko dira.

Infantilek ere 2.000 pzta. ordaindu beharko dute urtekoa, gimnasia erritmikoa izan ezik, 2.000 pzta. ordaindu beharko baitute hileroko gimnasia erritmikokoek.

Joan zen urtean ia 600 haur

Izen ematea ikastetxean bertan eta badmintonaren kasuan Kultur Etxean egin beharko da. Iaz partehartzaileen kopuruak gora egin zuen nabarmen eta 6 urtetik 14 urtera bitarteko 548 haur aritu ziren kirola egiten. Horietatik 317 Aranzadi ikastolakoak ziren, 182 Mariaren Lagundikoak eta 59 San Martin ikastetxeakoak. Aurten ere beste hainbeste espero dira.

Ikasturteak irauten duen bitartean OHOKo neska- mutikoek kirola egiteko aukera izango dute

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Miguel A. Muela

Euskadiko xakelarien burua

FUTBOL PARTIDUAK

BKEk jakinarazten du 95-96 denboraldirako karnetak jaso edo bazkide izan nahi dutenek datorren astean zehar arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara pasa beharko dutela Bidekurutzetako bulegotik.

FUTBOL PARTIDUAK

Larunbatean arratsaldeko 17.15etan Errejonaleko taldeak Pasajesen aurka jokatu du. Ohorezko mailako jubenilek, aldiz, arratsaldeko 15.30etan Idiazabalen aurka neurtuko dituzte indarrak.

XAKE OPENA

Larunbatean goizeko 10etatik 14.30etara bitartean eta arratsaldeko 16.30etatik iluntzeko 21.00 etara 3. Bergara Hiria txapelketa irekia jokatu da. Igandean, berriz, Zabalotegiko aretoan bilera teknikoa izango da "ajedrez hezitzaileen" gaia jorratuko dutelarik. Ondoren, goizeko 10etatik 14.30etara bitartean txapelketak Kiroldegian jarraituko du eta arratsaldean, 16.30etatik 18.30etara burutuko da txapelketa.

SAN MARTIN HERRI KROSSA

Hurrengo zapatuan, hilak 23, San Martin Herri Krossa jokatu da arratsaldeko 6etatik aurrera herriko kaleetan zehar. Irteera San Martin plazan egingo da eta izen ematea doan da.

Miguel Angel Muela Bergarako xake elkar-terko presidentea izate-az gain, Euskadiko xake federazioko presidentea ere bada azken 7 urteetan. Aste hone-tan zehar izan den xake asteari buruz hitz egin dugu Muelarekin.

- Ze helbururekin antolatu duzue xake astea?

- Gure helburua xakea Bergarako herrian zabal-tzea izan da. Edonoren-tzako ekitaldiak antolatu ditugu eta jendearen parte hartzea bultzatzea izan da xede nagusia.

- Asko kostatzen da horrelako ekitaldi bat antolatzea?

- Bai, hizlariak ekarri, partidak antolatu, gestio-ak egin... horrek denbora asko eskatzen du.

- Nola ikusten duzu gaur egun xakea Ber-garan?

- Urte oso onak izan ditugu lehiaketa mailan eta beste batzuk ez hain onak. Batzutan lan ona eginda ere ez dira fruitu-ak ateratzen eta beste batzutan bai. Azken 2 edo 3 urteetan ez dugu emaitza onik izan eta gaur egun badirudi maila ona dutela klubean dabiltzan gazte-ek. Bitartean xakean jo-katzen jarraitzen dutenak maila ona erakusten ari dira.

- Asteburuan zehar Kiroldegian jokatu den Openak ze kalitate izango du?


- Oihartzun handia lortu du azken urteetan. Kanpotik jokalaria asko

etorriko dira eta nazioar-teko maisuak ere izango ditugu. Alde batetik sari onak banatzen ditugu eta gero ELO rankingerako ere garrantzitsua da Ber-garan irabaztea. Horrezaz gain, xakelari zaleak izan-go ditugu, jokatzeko erak hori ahalbideratzen baitu. Afizionatuek jokalaria onekin indarrak neurtze-ko aukera dute eta hori oso ondo dago. Bergara-tik espero dugu Martin Arriaran eta Andres Die-zek parte hartzea eta kan-potik Felix Izeta maisu internazionala, Euskadiko

txapelduna den Iruzu-bieta eta Mario Gomez izango dira bihartik au-rrera Bergaran. Errusiar bat ekartzeko gestioak ere egiten ari gara eta, azken finean, parte har-tze bikaina izango dela uste dut.

- Pazkuetan Ber-garako Xake taldeak 25 urte betetzen dituela eta, ekitaldi berezirik antolatuko al duzue?

- Bai, gure asmoa Ber-garan ahalik eta xakelari gehien batzea da Guinness errekorren barruan sar-tzeko.



"Begarako gazteek maila oso ona dute xakean".

"Pazkuetan Guinness errekorren liburuan sartzeko ekitaldi bat antolatuko dugu"



*Goiko argazkia: Ramon Etxaniz
Beheko argazkia: Aintzane Arana*

San Martinak direla eta

Oraingoan bi argazki ekarri ditugu sail honetara. Elkarrekin zerikusirik ez duten arren, San Martinekin badute loturarik.

Goiko argazkia, 1952ko San Martinetako prozesioko irudi bat duzue. Garai hartan, gaur ez bezala, prozesioa egiten zen San Martin egunean, goizez, herriko kaleetatik zehar eta oso arrakastatsua izaten omen zen. Ezin izan ditugu argazkian agertzen diren guztien izenak jaso, baina horra hor San Pedro inguruan agertzen diren hainbat herritarren izenak: dantzari jantzita, Juanito, Ramon eta Joaquin Etxaniz anaiak, Miguel Mari eta Inazio Mari Basterra anaiak, Ignacio Juaristi, Jose Mari Arizmendi, Joaquin Gantxegi, Iñaki Juaristi "Pirri", Ignacio Arriola, Carlos Albusua eta Javier Odriozola. Urte hartan Zumalabe omen zen Bergarako alkate eta Udalbatza prozesioaren buruan joaten zen.

Beheko argazkia ez da hain zaharra. Bertan Moises Azpiazu zena eta bere agindutara ikasten zuten dantzari bikoteak agertzen dira, dantza sueltoko txapelketetan hainbat sari jaso dituztenak, tartean Eduardo Muruamendiaraz, gaur egungo Euskadiko Txapelduna.

Argazkia, orain dela 24 bat urtekoa da eta azken urteetan San Martinetan antolatuta izan den Moises Azpiazuren omenezko dantza txapelketa dela eta ekarri dugu hona. Hauetxek dira argazkikoak:

Makurtuta: Xabier Mujika, Eduardo Muruamendiaraz, Xabier Errasti, Joseba Aseginolaza, Moises Azpiazu, Iñaki Pardina eta Luis Miguel Azpiazu.

Zutik: Ane Miren Aranburu, Izaskun Pardina, Aintzane Arana, Miren Berasategi, Jaione Arana eta Nerea Larrañaga.

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



eder

BARRENKALEA, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

7
POLIZA

10
POLIZA

Trebol
POLIZA

10s
POLIZA

Lider
POLIZA

Todo
Riesgo
POLIZA

Basica
POLIZA

Todo
Riesgo
100
POLIZA

GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguruak aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitezen. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.

MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA
☎ 76 28 79 / 76 18 80

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun

DENDA ESPEZIALIZATUA.

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.

San Lorentzo
Poligono Industriala.
Amilaga, 10 behea.
BERGARA

JAKINA

Telefona: 76 03 30
Faxe: 76 02 30